Euskal Herrian, 2015eko urtarrilaren 31ean

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako PAH – Kaleratzeak Stop elkarteek, IRPH Stop Gipuzkoa-rekin batera,

## KALERATZEAK, POBREZIA ETA BERDINTASUNIK EZA EKIDITEKO OINARRIZKO NEURRIEN DEKALOGOA

sinatzeko dei egiten diegu alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioei.

Eusko jaurlaritzaren Behar Sozialei Buruzko Inkestaren arabera, EAEn 250.000 familia urritasun egoeran bizi dira. Erdiak pobreak dira, eta 90.000 pertsona pobrezia energetikoaren biktima dira, 65.687 pertsonak RGI delako oinarrizko errenta jasotzen duen arren. Finantza-entitateek, Alokabide bezalako erakunde publikoek eta partikularrek buruturiko etxegabetzeak gero eta gehiago dira. Hilean 60 kaleratzetik gora burutzen dira, Kutxabank delarik gehien kaleratzen duen entitatea. Banketxe honek, besteen antzera, etxea ordainetan hartu eta alokairu soziala eman baino nahiago du bere maileguak “funts putre” delakoei oso merke saltzea. Europako eskubideen kartan jasotzen den etxebizitzarako oinarrizko eskubidea sistematikoki hausten da, eta Etxebiden 50.000 pertsona daude izena emanda alokairuko etxebizitza baten zain.

Egoera honen aurrean gizarteak konponbideak exijitzen ditu, pasa den abenduan Donostian hainbat eragile sozial eta sindikalekin batera egin genuen manifestazioan erakutsi genuen bezalaxe. Gaur, orduan bezala, Nelson Mandelaren hitzekin bat egiten dugu: «esklabotza eta apartheid-a bezalaxe, pobrezia ez da fenomeno natural bat. Gizakiak eragiten du eta gizaki horren beraren eraginez gainditu eta ezabatu daiteke».

Horregatik alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioei dei egiten diegu neurri hauek bultza ditzaten ordezkaritza duten erakunde guztietan, baita 2015ko maiatzeko udal eta foru hauteskundeetan lortu ditzaken horietan ere.

Dekalogo hau izenpetzeko epea 2015eko otsailaren 28an itxiko da. Proposaturiko neurriak patxadaz aztertzeko, eragile politikoei dei egiten diegu otsailean zehar bilerak ospatzeko. Ondoren, bakoitzak hartu duen konpromiso mailaren berri emango diogu gizarteari.

Euskal Herria, 31 de enero de 2015

Las Plataformas de Afectados por la Hipoteca – Kaleratzeak Stop Desahucios de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, junto con IRPH Stop Gipuzkoa, instan a partidos políticos y coaliciones electorales a la firma del siguiente

## DECÁLOGO DE MEDIDAS BASICAS DE LUCHA CONTRA LOS DESAHUCIOS, LA POBREZA Y LA DESIGUALDAD

Según la Encuesta de Necesidades Sociales del gobierno vasco, 250.000 familias viven en estado de precariedad en la CAV. La mitad son pobres, y 90.000 personas son víctimas de la pobreza energética. Ello a pesar de que 65.687 personas perciben la RGI. Los desahucios ejecutados por entidades financieras, organismos públicos como Alokabide y particulares siguen creciendo. Se realizan más de 60 desahucios cada mes, siendo Kutxabank quien más desahucia. Esta entidad, como otras, prefiere malvender sus préstamos a "fondos buitre" en lugar de acceder a la dación en pago con alquiler social. El derecho fundamental a una vivienda, recogido en la Carta de Derechos Europea, se incumple sistemáticamente, y Etxebide registra 50.000 inscritos en demanda de una vivienda de alquiler.

Ante esta situación la sociedad exige soluciones, tal y como expresamos en la manifestación contra la pobreza y la desigualdad celebrada el pasado mes de diciembre en Donostia, con apoyo de numerosos agentes sociales y sindicales. Hoy como entonces hacemos nuestras las palabras de Nelson Mandela, y sostenemos que «al igual que la esclavitud y el apartheid, la pobreza no es un fenómeno natural. La causan los seres humanos y puede ser superada y erradicada gracias a la actuación de esos mismos seres humanos».

Por eso instamos a partidos políticos y coaliciones electorales a impulsar estas medidas en todas las instituciones en las que tengan representación o puedan obtenerla en las próximas elecciones municipales y forales de mayo de 2015.

El plazo límite para la firma de este decálogo es el 28 de febrero de 2015. Para un análisis detallado de las medidas propuestas, invitamos a los agentes políticos a una ronda de reuniones durante el mes de febrero. Posteriormente, comunicaremos a la sociedad el nivel de compromiso adquirido por cada uno de ellos.

**Harremanetarako / contacto: stopdesahucios@plazan.net / 669 428 598**

Behean sinatzen duen alderdi politiko edo hauteskunde-koalizioak bere esku dituen baliabide guztiekin eta ordezkaritza duen erakunde guztietan ondoko neurriak bultzatzeko konpromisoa hartzen du:

El partido político o coalición electoral abajo firmante se compromete a impulsar con todos los medios a su alcance, y en todas las instituciones en las que tenga representación, las siguientes medidas:

1.- EAErentzako ETXEBIZITZA LEGEA

Administrazioaren eta Justizia Epaitegien aurrean galdagarria den etxebizitza duin baterako eskubide subjektibo, unibertsal eta eraginkorra aitortuko duena.

Finantza-entitateen eta euren menpeko sozietate, higiezinen agentzia edota inbertsio-funtsen esku dauden etxebizitza hutsen gainean isun eta desjabetze sistema bat jasoko duena, alokairu sozialerako etxebizitzen parke publiko batera gehituak izan daitezen.

1.- LEY DE VIVIENDA PARA LA CAV

Que reconozca y se aplique el derecho subjetivo, universal y efectivo, al uso de una vivienda digna, exigible ante la Administración y los Tribunales de Justicia.

Que recoja un sistema de sanciones y expropiaciones de uso para las viviendas vacías propiedad de entidades financieras y sociedades dependientes de las mismas, inmobiliarias o fondos de inversión, con objeto de incorporarlas a un parque público de viviendas de alquiler social.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

2.- ALOKAIRU SOZIALERAKO ETXEBIZITZEN PARKE PUBLIKOA

EAE-k alokairu sozialerako etxebizitzen parke bat behar du, gaur egun 50.000 baino gehiago diren eskabideei aurre egiteko gai izango dena. Erakunde publikoen jabego diren babes ofizialeko etxebizitzak eta euren eraikuntzan baliabide publikoak erabili dituztenak alokairu sozialerako etxebizitzen parkean sartuak izango dira zuzenean, eta ezin izango dira “funts putre” edota pertsona juridikoei salduak izan, ezta alokairuan jartzeko baldintzarekin ere.

2.- PARQUE PÚBLICO DE VIVIENDAS DE ALQUILER SOCIAL

La CAV necesita un parque público de viviendas de alquiler social que sea capaz de cubrir la demanda actual de más de 50.000 peticionarios. Las viviendas de protección oficial que sean propiedad de las administraciones públicas o para cuya construcción se hayan empleado recursos públicos serán asignadas directamente al parque público de viviendas de alquiler social, y no podrán ser vendidas a “fondos buitre” o personas jurídicas, ni siquiera a condición de ser puestas en alquiler.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

3.- ALOKABIDE

Eusko Jaurlaritzak Gasteizko Parlamentuak 2014ko apirilaren 7an onartu zituen akordioak bete ditzala. Hain zuzen ere araudi erregulatzailearen berrikusketa, diru-sarreren %30eko mugak alokairua eta komunitateko gastu finkoak barne izan ditzala eta maizterrek euren etxebizitzei eragiten dieten Alokabideren erabakietan esku hartu ahal izatea.

3.- ALOKABIDE

Exigencia al Gobierno Vasco para que cumpla los acuerdos del parlamento de Vitoria del 7 de abril de 2014. Concretamente, revisión de la normativa reguladora, que el límite del 30% de los ingresos incluya el alquiler y los gastos fijos de comunidad y que los inquilinos puedan participar en las decisiones de Alokabide que afecten a viviendas que constituyen su domicilio habitual.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

4.- EAErentzako BANKU-PRAKTIKA EGOKIEN KODE BAT

Finantza-entitateek martxoaren 9ko baliabiderik gabeko zordunen babeserako premiazko neurrien RDL 6/2012 dekretua bete dezaten exijitzea, eta EAEko etxebizitzen bataz besteko salneurria kontuan hartuz egin dezatela, espainiar estatuko altuenetakoa baita.

Praktika egokien kode berri bat, eragile guztien artean prestatua eta ez aldebakarrekotasunez, fede oneko zordunentzat bigarren aukera bat benetan eskainiko duena, ordaindu gabeko denbora tarteak, zorra kitatzeak edota etxea ordainetan eman eta alokairu sozialaren bitartez.

Praktika egokien kodea betetzen ez duten entitateen zerrenda argitara ematea.

4.- UN CODIGO DE BUENAS PRACTICAS BANCARIAS PARA LA CAV

Exigencia a las entidades financieras para que apliquen el actual RDL 6/2012, de 9 de marzo, de medidas urgentes de protección de deudores hipotecarios sin recursos, y lo hagan teniendo en cuenta el precio medio de la vivienda en la CAV, que es de los más altos del estado español.

Nuevo código de buenas prácticas redactado por todos los agentes afectados y no de manera unilateral, que realmente ofrezca una segunda oportunidad a todos los deudores de buena fe mediante carencias, quitas o daciones en pago con alquiler social.

Publicación de la lista de entidades que no apliquen el código de buenas prácticas.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

5.- KONSUMITZAILEAREN BABESERAKO EUROPAR ARAUDIA BETETZEA

Estatu eta autonomia erkidego mailako araudia aldatzea kontsumitzaileekin sinaturiko kontratuetan abusuzko klausulak ezabatzeko, europar epaitegiak exijitzen ari diren moduan. Lege prozesalak aldatzea fede oneko zordunak euren ohiko etxebizitzetatik kaleratuak izan ez daitezen eta krisi-iruzur honek kalteturiko familiei bigarren aukera bat emateko.

5.- CUMPLIMIENTO DE NORMATIVA EUROPEA SOBRE PROTECCIÓN DEL CONSUMIDOR

Modificación de la normativa estatal y autonómica con el fin de que se eliminen las cláusulas abusivas en los contratos con consumidores, tal y como están exigiendo los Tribunales Europeos a los estados miembros. Modificación de las leyes procesales con el fin de evitar el desahucio de viviendas habituales de deudores de buena fe y facilitar la segunda oportunidad a las familias afectadas por la crisis-estafa.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

6.- IRPH

IRPHaren aldaera guztiak bertan behera uztea gardentasunik gabeak direlako eta banketxeek eurengan eragina izan dezaketelako. Euriborrarekin ordezkatzea, gehienez puntu bateko diferentzialarekin, eta indize hauekin kobraturiko diru guztia itzultzea.

6.- IRPH

Anulación de todas las variedades de IRPH por ser índices sin transparencia y manipulables. Sustitución por Euribor con un diferencial máximo de un punto porcentual, y devolución de todo lo cobrado mediante estos índices.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

7.- POBREZIA ENERJETIKOA

Baliabiderik gabeko familiei gasa, argindarra edota ura bezalako oinarrizko hornidurak moztea legez debekatzea, eta ordainagiriei aurre egin ezinari konponbide eraginkor eta premiazkoak ematea.

7.- POBREZA ENERGETICA

Prohibición legal de que se corten suministros básicos como gas, electricidad, o agua, a familias sin recursos, y soluciones efectivas y urgentes a la imposibilidad de pago de los recibos.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

## 8.- KUTXABANKEN PRIBATIZAZIOA

Kutxabanken pribatizaziorantz egindako urratsetan atzera egitea. Egungo banku-fundazioen modeloa onartezina da, eta berehala desagertzea exijitzen dugu, kapital pribatuaren sarrera ekidin eta kontrol publiko eta soziala bermatuko duen beste moduren bat hartuaz. Fede oneko zordunen aurka egiten diren politika antisozialak konpondu beharra dago, eta banketxeak euskal gizartearen eta bere familia eta industriaren zerbitzura egongo den tresna bilakatu behar du.

## 8.- PRIVATIZACIÓN DE KUTXABANK

Reversión de los pasos dados para privatizar Kutxabank. El modelo de fundaciones bancarias actual no es aceptable, y exigimos su liquidación inmediata, adoptando otras formas que impidan la entrada de capital privado y garanticen un control público y social. Las políticas antisociales aplicadas actualmente sobre deudores de buena fe deben corregirse y la entidad debe convertirse en una auténtica herramienta al servicio de la sociedad vasca, sus familias, y su tejido industrial.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

## 9.- GIZARTE-LAGUNTZA ETA GASTUA

Gizarte-gastuetara zuzenduriko aurrekontuak handitzea, elikadura, etxebizitza, energia, osasun, hezkuntza eta mendekotasunerako laguntzan dauden beharrak asetu bitartean. Horretarako ezinbestekoa da iruzur fiskalari aurre egiteko baliabideak abian jarri eta zerga-sistema birbanatzailea ezartzea, gehiago duten pertsona eta enpresek gehiago ordain dezaten.

## 9.- GASTO Y AYUDAS SOCIALES

Aumentar las partidas presupuestarias destinadas a gasto social, hasta garantizar las necesidades en materia alimentaria, habitacional, energética, sanitaria, educacional, y de atención a la dependencia. Para ello es imprescindible habilitar los medios necesarios para perseguir el fraude fiscal y establecer una fiscalidad redistributiva en la que paguen más las personas y corporaciones que más tienen.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

## 10.- ETXEGABETZERIK GABEKO HERRIAK

Udaletxeek finantza-entitateen eta Alokabideren aurrean bitartekaritza lana egingo dute fede oneko zordunak euren ohiko etxebizitzatik kaleratuak izan ez daitezen, eta azkenik etxegabetzea ekidin ezin bada baldintza duinetan ostatu emateko neurri eraginkorrak hartuko dituzte. Gainera, herrian hutsik dauden etxebizitzen zerrenda egingo dute, finantza-entitate eta euren higiezinen-agentzia edota inbertsio-funtsenak direnak azpimarratuaz.

## 10.- MUNICIPIOS LIBRES DE DESAHUCIOS

Los ayuntamientos intercederán ante las entidades financieras o Alokabide para evitar los desalojos de deudores de buena fe de sus viviendas habituales, y si finalmente no se puede evitar el desahucio, establecerán medidas efectivas para su realojo en condiciones dignas. Además, elaborarán un listado de viviendas vacías en el municipio, singularizando aquellas cuyo propietario sea una entidad financiera, inmobiliaria o fondo de inversión.

☐ BAI / SÍ ☐ EZ / NO

Sinatua / Firmado

(Alderdi edo koalizioaren izenean / En representación del partido político o coalición)